




Urriaren 6an bisitatu ahal izango da Erandioko Martiartuko dorrea. LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

Bizkaiko jagoleen itzala

Bizkaiko harresi, dorre eta gotorleku zaharrak ezagutzeko aukera izango da urrian

ERIZ LOTINA

Erandio

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatutako, lurralde historikoan barna dauden harresiak, dorreak eta gotorleku zaharrak bisitatzeko aukera izango da. Bisita gidatuak doan izango dira, eta urriaren 4tik 14ra egingo dira. Erdi Aroko eraikin esanguratsuez gain, aurreko zein ondorengo garaietako eraikuntzak ikusi ahaliko dira. Jardunaldien aurkezpenarako Erandion (Bizkaia) kokaturiko Martiartu dorrean hautatu zuten.

Jardunaldien aurkezpenean Belen Greaves Kultura ahalduak azpimarratu zuen ekimenak jendeak «oso gutxi» ezagutzen dituen lekuak bisitatzeko parada ematen duela. Greavesek azaldu zuenez «eraikinetako asko lehen aldiz irekiko dira publikora». Aldundiko Kultura arduradunak toki eta ekintza «oso interesgarriak» eskaintzen ari direla gaineratu zuen. Bide batez, proiektuan elkarlanean dabilen 24 udalerri bizkaitarrei euren laguntza «eskertu» zien. Azkenik, Ondarea-

ren Europako Jardunaldiak Bizkaian antolatzen diren zazpigarren urtea dela erantsi zuen, eta ekimen horretan parte hartzen duen EAEko lurralde historiko «bakarra» dela gogoratu zuen. Bizkaia Europako beste 50 estaturekin batera parte hartzen du jardunaldietan. Jardunaldi batzuetan 5.500 bisita baino gehiago izan ditu. Aurten guztira 48 jarduerara antolatu dira.

Martiartu dorreak, salbuespen modura, lehenengoz ireki zituen ateak kazetarientzat eta jendearentzat, eta berriro irekiko ditu urriaren 6an. Dorre horrek monumentu historikoaren izendapena du, eta Erdi Aroko dorreen artean ondoen artatu direnetako bat da. Garaiko eraikin adierazgarrietakoak da Muskizko Muñatones dorrearekin batera (Bizkaia). Defentsa eraikinaren kanpoaldea XVI. mendearen hasierakoa da. Hala ere, jatorrizko dorrearen hondarrak XIV. mendearen bigarren erdikoak dira. Leinuaren etsaiek erre egin zuten 1472an, eta XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten, aurrez zegoen dorrea osatuz.

Martiartu dorretxearen ondoren, eta horren historiari hertsiki loturik, XV. mendeko San Antonio basiliza dago. Burdinola bat zegoen garai batean leku hartan. Jardunaldien aurkezpenean parte hartu zuen Alberto Santana histo-



Dorrea kanpotik ikusita. LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

rialariaren arabera Martiartu dorrea «helezina» ematen du, «helburu horrekin sortu» zelako, hain zuzen ere.

Kanpoaldetik eraikina nahiko egoera onean aurkitzen da, baina, dunaldien aurkezpenean parte hartu zuen Alberto Santana areto-

dun dorrearen eredua da, nahiz eta jatorriz mota honetako dorreetan hain ohikoak ez ziren berezitasun batzuk azaldu, balkoi jarraitua, esaterako.

Bizkaiko ia dorre guztiekin gertatu zen bezala, 1500. urtearen inguruan eraiki zuten. Eraikitzea-

■ BISITA GIDATUAK

Egitaraua

- **Arratzu.** Arrolako irunera urriaren 5ean, 6an eta 7an.
- **Balmaseda.** Hirigune historikora 6an eta 7an.
- **Bilbo.** Burdin Gerrikora 5ean, 6an eta 7an.
- **Erandio.** Martiartu dorrea 6an.
- **Durango.** Harresiei bisita 6an eta 7an.
- **Getxo.** Galeako gotorlekura 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an.
- **Gordexola.** Oxirando, Ibarguena eta Zubietara dorretara bisitak 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an.
- **Gueñes.** La Quadra dorrea 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an.
- **Lekeitio.** Erdi Aroko harresira 5ean, 6an eta 7an.
- **Markina-Xemein.** Barrietako dorrea 12an eta 14an.
- **Orozko.** Torrezar dorretxera 6an, eta Untzeta gaztelura 7an.
- **Portugalete.** Salazar dorrea urriaren 1etik 14ra.
- **Santurtzi.** Serantes mendiko gotorlekura 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an.
- **Zalla.** Bolunburuko irunera 11n, 12an eta 14an.

ren arduraduna Martiartuko Martin Ortiz izan zen. Nahiz eta martiartutarren jatorria iluna izan, lehen eskuorde ezaguna Diego Perez Zaharra izan zen. Baina martiartutarren benetako hazkundera eta leinuaren sorrera Martin Ortizek ekarri zuen. Horrek lortu zituen Uribeko butroetarrekin harreman emankorra, haren sasiko alaba bat butroetar batekin ezkonduz. Ortiz 1415ean hil zen, eta oinordekotza izen bereko semeak hartu zuen. Hura abendañotarren kontrako borrokan hil zen, Bilboko Ganguren gainean 1444an.

Ez zuenez semerik izan bere jabetza Maria Lopez alabarentzat eta haren senar getxotarren leinuko Ochoa Ortizentzat izan zen. Getxo-Martiartu lotura horren helburu nagusia eskualdeko erroten monopolioa bermatzea izan zen.

ARROLAKO GOTORLEKUA. Jardunaldi horien barnean ikus daitekeen elementurik zaharrena Arratzuko Arrolako gotorlekua da. Kasu horretan ere, lehenengoz egingo dira herrixka hori ezagutzeko bisita gidatuak. Han indusketa arkeologikoen kanpainak egiten ari dira. Gotorleku hori II. Burdin Aroko eta erromatarren aroaren hasieran indigenek erabiltzen zuten, ekialdeko Bizkaiko Golkoren lurretan, elkartzeko ohiko *oppidum* edo eremu gotortuetako bat da. Harresia 6 metro luze da, barrutik lurrez egina eta harriz estalita dago. Garai horretan Arrolako talaia honetatik antolatzen zen Urdaibaiko eguneroko bizimodua.

Bisitetan parte hartu nahi izanez gero, aldeaz aurretik deitu behar da. Irailaren 24tik hasita deitu ahal da 902-87 61 38 telefonora.